



ELKARBIZITZA ARAUDIA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

(201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koan, oinarritzen da).

- Dekretuan xedatutakoa derrigorrez aplikatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (29.1. art.)
- DBHko ikasleen elkarbizitza arautzen du eta hezkuntza komunitate osoak ezagutu beharrekoa da, guztion arteko elkarbizitza errazteko eta oinarritzko gaitasunak lortzen laguntzeko (hala nola gizarte eta herritartasun arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak) tresna baita. (3.3. art)
- Guztion ardura da ikastolako giroa zaintzea eta elkarbizitza bultzatzea (2. art)
- Ikasleen betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desagokitzat. Ez-betetze horrek gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastexeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabidetzat hartuko dira.(3.1.art)
- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, adiskidetzeari eta kalte-ordainen bidez irtenbidea lortzeari lehentasuna emanez. (3.4.art)
- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzeko honako irizpideak erabiliko dira: (41.art; 44. art; 45. art; 46. art)
 - Erantzunkizuna arintzen edota prozedura eteten dutenak (jokabide desagokia onartzea, barkamena eskatzea, lehenengo aldia izatea, nahi gabe izatea, kalteak konpontzea, jarduera hezitzailearen egitea onartzea, familia-eremuan zuzentzea).
 - Erantzunkizuna haunditzen dutenak (nahita egitea, ikasle txikiago, etorri berri edo desgaitasuna dutenak erasotzea).
- Jokabide desagokiak irakasle guztiek berehala zuzentzeko eskumena dute, eta baita haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko, pertsonak edo objektuek kalteak jasotzea ekiditeko.(50.1., 50.2. art)
- Bizikidetzaren aurkakoak eta kalte larria eragiten duten jokabideak zuzentzeko eskumena zuzendaritzarena da. (50.3. art)



- Zuzendariak, ikasleek jokabide hori zuzen dezaten ahalegina egingo du, ikasleak bere borondatez hartutako neurriekin edo gurasoek onartutako neurrien bidez, inolako prozedura martxan jarri gabe. (43.1. art). Baina ezingo da horrela jokatu kasu hauetan (43.2. art) :
 - Gutxienenez bi aldiz aurretik egin bada konpontzeko ahalegina eta lortu ez bada
 - Sexuagatiko jazarpena egon bada
 - Irakasle bati eraso egin badio
 - Beste kide batzuei eraso larria egin badie
 - Berdinen arteko tratatu txarrak ematen direnean KiVa protokoloa aplikatuko dugu. Protokoloak ez badu emaitza positiborik, araudi hau jarraituko dugu.
- Familiak ez badaude ados hartutako neurri zuzentzaileekin, Artezkaritza Kontseiluak berrikusteko eskatu dezakete jakinarazpena jaso eta 3 egunen buruan (50.4. art). Artezkaritzak ebatzitakoarekin ez badaude ados, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan jar dezakete erreklamazioa, 3 egunen barruan. (56.art)
- Ikaslearen jokabidea bizikidetzarentzat larriki kaltegarria den kasuetan (berdinen arteko tratatu txarrak edo sexuagatiko jazarpena adibidez), Hezkuntza Ikuskaritzari jakin araziko zaio (28.3.art)
- Hemen bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpoko jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean. (33. art)
- Jokabide desegokiak zuzentzeko neurriak erabakia hartu eta gehienez 20 eskola-eguneko epean aplikatuko dira.(53.art). Prozeduran sortu diren agiriak ikasturtearen amaieran suntsitko dira.(57.art)
- Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko neurriak 3 eskola-eguneko erreklamazio-epea bukatu eta gehienez 60 eskola-eguneko epean aplikatuko dira. (53.art). Prozeduran sortu diren agiriak ikasturtearen amaieran suntsitko dira. (55. art.)
- Bizikidetzan kalte larriak eragiten duten jokabideak zuzentzeko neurriak 3 eskola-eguneko erreklamazio-epea bukatu eta gehienez 120 eskola-eguneko epean aplikatuko dira (53.art). Prozeduran sortu diren agiriak hurrengo ikasturtearen amaieran suntsituko dira. (55. art)



- Jazarpen kasuetan, jazarpenen aurkako protokoloa erabiliko da.
- Zenbait arlok berezko araudia dute, eta printzipio berberetan oinarritzen dira (Ikus eranskinak):
 - Ikasketa-bidaia
 - Jangela
 - Eguneko irteerak
 - Chormebooka eta mugikorraren erabilera

BETEBEHARRAK	JOKABIDE DESEGOKIAK (30. art)	BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK (31. art)	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIAK (32. art)	NEURRI ZUZENTZAILEAK
	Norberaren betebeharren edozein ez-betetze, betiere hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa	Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori ez baldin bada bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea. -Jokabide desagokiren bat	Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-	



	edo bizikidetza horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.	gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.	askatasunerako, parte-hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea. - Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere. -Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo	
--	--	--	---	--



			legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.	
21. artikulua.- Ikasteko betebeharra 1.– Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak albait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du	- Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.			- Proba ez zaio gainditutzat emango eta errepikatu beharko du.
		- Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea. - Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai		- Ohartarazpen idatzia. - Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. - Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak



eragozpenik sortuko gelan. 2.– Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte baliatuko.		bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute. -Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietarako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.		edo legezko ordezkariak bertan direla. - Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkarekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun. - Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere,
--	--	---	--	--



				eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean. - Kiroldegiko zerbitzuak, jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.
			- Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukatzea edo	- Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo kiroldegiko zerbitzuak edo



			aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutatzea edo baimenik gabe ateratzea ere. - Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilita aritzea. - Ordena nahasten duten jokabideak kiroldegian, autobusean, eskolako jangelan edo puntualki erabiltzen den edozein eraikin edo espazio publikoetan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.	eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da. - Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta
22. artikulua.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra. Ikasle guztiek hartu behar dute parte	- Eskatutako lanak ez entregatzea			-Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea. (Ikasketa jarduerak hobetzeko edota egin ez dituen lanak osatzeko, eskola ordurik kanpo egiten



prestakuntza- -jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.				geratzea).
23. artikulua.– Bertaratzeko betebeharra. 1.– Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntueltasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte. 2.– Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta	- Justifikatu gabeko puntueltasun- -hutsegiteak. -Justifikatu gabeko bertaratze- hutsegiteak.			- Familiari abisatuko zaio, familia barruan neurri zuzentzaileak har ditzatzen (konpromezua eskatu)



puntualtasun-hutsegitet zat: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago, Dekretu honetako 13.3 eta 14.3 artikuluetan ezarritakoaren aurka joan gabe.				
24. artikulua.– Bizikidetza errazteko betebeharra. 1.– Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetza	- Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak. -Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua			-Klasea ematea eragozten badu, izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa idatzia (gelatik ikastordurako kanporatua izatea). -Kaltetuak izan diren



hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritzaren eta orientazioaren errespetatuz. 2.– Horretarako, ikasleek beren ikastetxeko Barne Araudian bildutako Bizikidetzaren Arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazka	ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inork kalterik eragiten ez badiu.			pertsonen aurrean jokabidea desagokoa izan dela onartzea. - Jokabide desagokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea - Zuzendariaren, ikasketaburuaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritzaren taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.
		-Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie. - Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta		- Ohartarazpen idatzia. - Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. - Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla. - Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.



konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartasunez jokatzuz eta hezkuntza- -komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz. 3.– Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratzuz.		beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe. -Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.		- Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
			- Klase orduko materialaren erabilpen edota jarrera arduragabeak ikaslearentzat edota ingurukoentzat ondorio oso larriak suposatzen arriskua badakar, falta oso larri bezala kontsideratuko da.	
25. artikulua.– Norberaren				



kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra. 1.– Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia		- Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz. -Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.		- Ohartarazpen idatzia. - Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. - Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla. - Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko. - Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkarekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
--	--	--	--	--



edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. 2.– Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean. 3.– Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo. 4.– Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute		Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada. - Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.		
			-Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea,	- Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru



grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.			diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. - Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute. - Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen	eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta. - Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta
---	--	--	---	--



			arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. -Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada. -Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako	
--	--	--	---	--



			eraso fisiko edo psikologikoa. - Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea eta kontsumitzea.	
26. artikulua.– Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra. 1.– Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko,	- Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren			-Klasea ematea eragozten badu, izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa idatzia (gelatik ikastordurako kanporatua izatea). -Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea. - Zuzendariaren,



bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala EHAA - 2008ko abenduak 16, asteartea N.o 240 ZK. BOPV - martes 16 de diciembre de 2008 30951 badagokio,	jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere. -Ikastetxeko Artezkaritza Kontseiluak bere eskumen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.			ikasketaburuaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.
ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere. 2.– Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari		-Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea. - Ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren		- Ohartarazpen idatzia. - Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. - Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla. - Ikaslea taldez edo gelaz



eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, atsedendietan eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasturtetik aurrera ikasle adingabeei irteera horiek baimentzeko, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko eskabidea beharko da Dekretu honetako 14.3 artikuluan		eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.		aldatzea, aldi baterako edo behin betiko. - Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkarekin elkarritzeta izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
			- Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia-ukitze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo	- Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta. - Ikastetxera joateko



ezarritakoaren aurka joan gabe. 3.– Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legeko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dituzte. 4.– Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.			iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz. - Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.	eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta
27. artikulua.– Instalazioak errespetatzeko betebeharra. 1.– Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak	- Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak			a) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desagokia izan dela onartzea. (Ikastolako eraikuntzetan, baliabideetan edo beste ikaskideen materialetan kalteak sortzean, kalte horiek



zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo. 2.– Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean	eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean. -Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea. -Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetza-arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka. -Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea,			ordaintzea, edota kalteak eraikuntzetan sortuz gero eta ikasleak konpon baditzake, eskola ordutegitik kanpo konpontzea) b) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa idatzia (gelatik ikastordurako kanporatua izatea). -Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea
---	---	--	--	---



sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez eratu diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkarteak ordezkatzan dituzten pertsonak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari gisa identifikatzen dien dokumentazioa baldin badute eta elkarteko zuzendaritzari beren bisitaren berri eman badiote. 3.– Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz	haien borondatearen aurka.	- Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.		- Ohartarazpen idatzia. - Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. - Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla. - Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere. - Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea
---	-----------------------------------	--	--	---



gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.				etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
			- Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.	- Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta. - Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere



				lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta
--	--	--	--	--